

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen 2025ko bigarren seihilekoko errolda, eta ordainagiriak ordaintzeko moduan jartzea borondatezko epean

Arrietan etxeak edateko urez hornitzearen tasako 2025ko bigarren seihilekorako errolda egin da eta hamabost egun baliodunez jendaurrean egongo da, honako iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek hura aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Arrietako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritz Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko epean kobratzeko aldia 2026ko apirilaren 23tik maiatzaren 23ra artekoa da, egun biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak 2026ko maiatzaren 23an kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenez Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat emango da administrazio batzarrean.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Arrietako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arrieta, 2026ko martxoaren 25a

Presidente

AITOR ALVARO RUIZ DE EGUILAZ